

6 -TESTUA: NAZIO-INTERESEKO INDUSTRIAK BABESTEKO LEGEA (1939-10-25)

Espainiak bere historiako krisirik larriena gainditu behar izan zueneko Iraultza loriatsuan, agerian gelditu zen nazioaren bizitzarako zeinen garrantzi handikoa den gerrarako behar dituen industriak eta ezinbesteko lehengaiak bere lurraldean izatea.

Gure ekonomia dagoen egoeran egonik, bestalde, beharrezkoa da ahaleginak egitea Espainia produktu arrotzen inportazioan integratzeko, halakoak gure nazioaren lurraldean ekoitzi edo fabrikatu daitezkeenean.

Gaur arte lortu ez denez, kanpo-merkatuak aukera emanik ere, ekimen partikularren bidez premia horiek asetzea, komeni da nazioaren interes bereziko diren halako industriak ezartzeko laguntza ematea, funtzionamendu normala ziurtatuko dieten bermeak eta onurak eskainiz. Hori dela eta, hau XEDATZEN DUT:

1. art. Nazioaren defentsaren edo ekonomiaren premien ondorioz beharrezko ikusten bada Espainian industria bat ezartzea, eta hartarako ekimen publikoa sustatu beharra baldin badago, "nazio-intereseko" deklaratu ahal izango da industria hori, dagozkion txosten tekniko eta ekonomikoak egin ondoren.

2. art. "Nazio-intereseko" deklaraturakoan, industria batek honako betebeharrak hauetaz gozatu ahal izango du, bost urterainoko epean:

a) Industria hori jartzeko behar diren lurak nahitaez desjabetzeko ahalmena.

b) Zergak murriztea, % 80eraino.

c) Estatuak haren kapitalari urteko gutxieneko etekin bat bermatzea, % 4rainokoa. Atal honen arabera bermatutako kapitala ezin izango da, guztira, mila milioi pezeta baino gehiago izan.

d) Aduana-eskubideetan beherapena egitea instalazioetarako makineria eta lanabesak inportatzean, Espainian fabrikatzen badira ere.

3. art. Onura horien trukean, estatuak esku hartuko du industria ezartzean eta haren martxan, kontu-hartzaile bat eta kontseilari-ordezkarik bat izendatuta, egintzak eteteko ahalmena izango dutenak; aukera izango du, orobat, instalazioak bere teknikariekin balioesteko.

6. art. Enpresa emakidadunek, sozietatearen egonkortasuna eta martxa ekonomikoa ziurtatutakoan, ezingo diete onurei uko egin, eta, orduan, hirugarren artikuluan adierazitako esku-hartzetik ezingo dira libre geldituko.

Boletín Oficial del Estado, 1939ko urriaren 25a.